

HIRUGARREN GIZONA

Graham Greene



Itzultzailea: Iñaki Ibañez


erdal literatura beltza




ELKAR

Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abiaburu 'abiapuntua'	«...baina inoiz ez genuen asmatu bide zuzenari jarraituz abiabururaino heltzen.»	(94)
aburu 'iritzia, ustea'	«...nahiko bahiketa zentzugabeak, gure aburuz ...»	(9)
adats 'ile multzoa, luzea'	«... adatsaren usain goxoak edo esku baten ukipenak...»	(43)
adeitsu 'zuzena, errespetuzkoa'	«Martinsi harrera beroa eta adeitsua egin eta bere andere puska aurkeztu zion...»	(54)
adur 'zoria, patua'	«...berak hala nahi gabe berez gertatzen zitzaizkion gauzak, adurrekoak...»	(11)
agi zenez (agi izan) 'zirudienez'	«...talde txiki bat bilduta zegoen, agi zenez oso eginkizun pribatu batean baitaraturik.»	(17)
ahopeka 'ahots apalez'	«...Gräginek ahopeka galdetu zion Crabbini ahots lakarrez...»	(82)
ahuspez 'lurrera begira etzanda'	«Beste txori bat pausatu zen (...) ahuspez zetzan gorpu isilaren inguruan.»	(46)
aienatu 'urrundu, desagertu'	«Irudia aienatu zen eta pentsatu zuen harrizkoa zela une hartan bertan guztiak aurrean egotea...»	(45)
aieru 'irudipena, ustea'	«Hasieran aieru hutsetan oinarritutako frogak ziren, eta Martins urduritzen ari zen.»	(93)
aise 'erraz'	«...horrelako gizon bat aiseago asaldatzen da.»	(94)
aitzin 'aurrea'	«...Polizia Militarreko koartelaren ateondo argituaren aitzinetik igaro zen.»	(67)
akitu 'nekatua, indar gabea'	«...zona frantziarra hiru koloretako bandera zarpail akituagatik (..) nabarmentzen zen. »	(17)
aldiri 'ingurua'	«...Viennako aldirietan apartamendu haundi bat baitzeukan...»	(14)
alu 'ganorabakoa, lerdoa'	«— Ameriketara izan zara? —elkarrizketa alua zen.»	(24)
amarrukeria 'azpikeria'	«Egia da erruduna zarela amarrukeria bidez dirua eskuratzeagatik.»	(59)
anartean 'artean, ordura arte'	«... anartean ustekaberik larrienean murgildu gabe zegoela.»	(14)
apika 'agian, beharbada'	«Lotsatu samarturik zegoen apika Martinsen ezpain odolduagatik.»	(28)
arbiuatu 'gaitzetsi'	«Bazirudien natura bera ere ahalegin guztiak egiten ari zela Lime arbiuatzeko ...»	(7)
arranditsu 'handikeriazkoa, itxurazalea'	«Itzelezko famili hilobi arranditsuei elurrak komedia irrigarri airea ematen zien...»	(17)
arre 'gardentasunik gabekoa'	«Danubio ibai arre , geldo eta lohitsu bat zen...»	(9)
arregorri 'azalaren gorridura'	«...diagnostiko bat eman beharko balu, bakar-bakarrik adieraziko zukeen arregorria nabaria zela...»	(51)
asaldatu 'artegatu, aztoratu'	«— Coolerri kontatu nion —esan zuen asaldatuta —.»	(89)
asaldura 'ezinegona, urduritasuna'	«...nobeletan soilik azalerazten da barne asaldura edalontzi bat haustean.»	(40)
atxiki 'itsatsi, oratu'	«Beraiek uste baino hurbilagoko ahots batek hormari atxikitzen behartu zituen...»	(138)




atzeman 'harrapatu, atxilotu'	«Ez dizut inoiz lagunduko Harry atzematen .»	(129)
auhen 'intziria, negar hotsa'	«Oinazezko auhen bat zabaldu zen leizean barrena, oihal baten zarratada bailitzan...»	(139)
azpikari 'lan zikinean aritua'	«— Hiri honetako bizibiderik lardatsena zuen azpikaririk gaiztoenetakoa zen.»	(24)
aztaka 'ikutuz'	«Argi batek (...) erdi ilunetan uzten zituen, ate krisketak aztaka biraraziz.»	(57)
babo 'ergela'	«— Barregarri utziko zaitut, Viennako babo arraiorik haundiena bezala.»	(25)
bailegoen 'balego bezala'	«...Kurtzek berak zabaldu zion atea berehala, bisitari baten zain bailegoen .»	(119)
bailiran 'balira bezala'	«...azkenean eraitsi genuen eta lur piloak adreiluak bailiran haren gainera erortzera utzi.»	(7)
baitaratu 'murgildu, konzentratu'	«...talde txiki bat bilduta zegoen, agi zenez oso eginkizun pribatu batean baitaraturik .»	(17)
baldan 'zabarra, traketsa'	«Martinsek hitz baldan hauek esan zizkion...»	(68)
barrabas belar 'belar mota kaltegarria'	«...bertan Praterre suntsiturik, soildurik eta barrabas belarrez josirik zegoelarik...»	(9)
begietsi 'arretaz begiratu'	«Ez dut honenbesteko irudimena behinola izan omen zen bezala begiesteko ...»	(9)
begiramen 'begirunea, errespetua'	«Ez duzu nirekiko bat ere begiramenik erakutsi.»	(58)
begiratzeko 'begiratu gabe'	«...andenetan musuzapiak astintzen gelditzen direnak, azkar aldegin ordeztu, atzera begiratzeko .»	(19)
begirune 'errespetua'	«...hemen begirune haundia dizute idazle kristau bezala...»	(60)
begitan hartu 'gorrotatu'	« Begitan hartuko naute. Gutxien-gutxienik Viennatik botako naute.»	(76)
behinola 'noizbait, behin batean'	« Behinola dotore omen zen Barne Hiri honetan potentzia bakoitzak hilabeterako “buruzagitza” (...) bere gain hartzen du...»	(8)
beita 'amuko jaki puska'	«Amuan beita jartzea falta zen bakarrik.»	(133)
bekosko 'bekokiaren zimurdura'	« Bekosko ilunez, bere kontuz ez balitz bezala hau gaineratu zuen...»	(15)
beltzuri 'triste, atsekabeturik'	« Beltzuri aurkitu nuen, baina hitz egiteko gertu, neurri hertsien barne.»	(87)
berme 'garantia, segurantza'	«...nahiz eta Martinsen oroimenaren bermea ezin eman.»	(9)
beta 'denbora (aukera zentzuan)'	«...azukrerik gabe nahiago zuela esateko betarik eman gabe ere.»	(78)
betilun 'triste'	«Martinsek betilun bizkarra etzan zuen eta atzera ikusi zituen elurra, ohatila, Frau Kochen aurpegi etsitua.»	(83)
bide 'dirudienez, antza'	«...idazmahaiaren gainean, Harryk idazteko erabiltzen bide zuena...»	(57)
bilkura 'bilera'	«Hitzaurre batekin eman omen zion Crabbinek hasiera bilkurari ...»	(79)
bisuts (elur) 'xehea, fina'	«...autobuseko ateondoan zutik zegoela, ari zuen elur bisutsari begira...»	(13)




bizarra egiteke 'bizarra moztu gabe'	«...txima jario, bizarra egiteke , ulertu ezin zuen esperientzia batek aztoratuta.»	(104)
borrero 'heriotz emalea'	«...hirugarren gizon hura borrero baten gisara atzetik jarraiki balitzaio bezala.»	(76)
buruaz beste egin 'nork bere burua hil'	«Iruditzen zait agian hil egin zutela edo bere buruaz beste egin zuela.»	(50)
desenkusatu 'aitzakiak jarri'	« Desenkusatzen jarraitu zuen...»	(29)
diosal 'agurra'	«Baina kanpora orduko gizon bat aurreratu, diosala egin eta sendo esan zion...»	(77)
dolu-begizta 'bi begidun korapilo beltza'	«...ateko kirtenetik zintzilik dolu-begizta beltza ikusi zuenean...»	(14)
dolumin 'atsekabezko adierazpena'	«Anna Schmidtekin hizketaldi labur bat egin, doluminak emateko ez besterako...»	(43)
egotzi 'bota, zuzendu'	«Haserre begiratua egotzi zion Mr. Crabbini...»	(29)
egundaino 'inoiz, sekula'	«— Aizak, egundaino ez haut ezertan ere kanpoan utzi, motel.»	(123)
eraitsi 'jaitserazi'	«...azkenean eraitsi genuen eta lur piloak adreiluak bailiran haren gainera erortzera utzi.»	(7)
eramanarri 'eroapena, pazientzia'	«...borobil erdian jezarrita eramanarri ilunaz zain zeudelarik.»	(79)
erauntsi 'jasa'	«Neska bat zen (...) kanpoan presaka zihoana elur erauntsiaren pean.»	(36)
erdeinu 'mesprezua'	«...bere lagunari zoezer komentatu eta erdeinuz lokartu zena.»	(98)
erdietsi 'lortu'	«...propaganda fondoren batetik dirua erdiesten zuenean.»	(12)
eskerga 'haundia, itzela'	«...gurpil eskerga baten adarren antzera luzatzen ziren...»	(16)
estolda 'lur azpiko ubidea'	«— Estolda nagusirako sarrera bat da.»	(115)
estraineko 'lehenengoa'	«...Harry Limeren hiletan topatu bainuen estraineko aldiz.»	(7)
etsi-etsian 'itxaropenik gabe'	«Mr. Crabbini etsi-etsian esan zion...»	(78)
ez bat eta ez bi 'pentsatu gabe'	«...gero, ez bat eta ez bi , buruz salto egin eta ur lasterraren erdian murgildu zen.»	(138)
ezarian-ezarian 'poliki-poliki'	« Ezarian-ezarian alde batetik hiria hondoratu zen...»	(122)
ezordu 'ordu desegokia'	«Goizaldeko ezordu etsituetan halako batean Nazioarteko Patruila agertu zen begiratu bat ematera...»	(97)
gaitzerdi 'eskerrak!'	«— Gaitzerdi horrela gertatu izana —esan nion.»	(23)
gaitzesgarri 'onartezina, arbuigarria'	«...azpikeria (...) hau baino gaitzesgarriagorik bat ere ez.»	(91)
galtzarbe 'besapea'	«Tabako kartoi huts bat galtzarbean sartu eta bertan gelditu zitzaion.»	(138)
garaikide 'garai berekoa'	«Nobelagintza garaikidearen teknika.»	(60)




gazitigatu 'abisu eman'	«Nahita ez zion Kurtzi bere bisitaldiaren berri gazitigatu .»	(118)
gogaitu 'aspertu, nazkatu'	«— Bai — gogaiturik erantsi zuen—: holakoxea zen gure Harry, aizu.»	(100)
gogoeta 'hausnarketa, erreflexioa'	« Gogoetarako astia izan zuen...»	(42)
gur 'erreberentzia'	«...eskerronezko eta kunplimenduzko eseratxoak gurrak bailiran jaulkitzen joan ziren...»	(84)
gurtu 'adeitasunez makurtu'	« Gurtzarekin batera krak txiki bat entzun zen, bere alkandora zeluloidezkoa balitz bezala.»	(51)
halaber 'era berean'	«...banekien Dr Winklerri eta Cooler koronelari eginiko bisitaldien berri; halaber , Harry bizi izan zen etxalderako lehen itzulerarena.»	(87)
haztamuka 'ikusitako gabe haztatuz'	«...horma lauak ez zien koskarik erakutsi haztamuka zebiltzan bere behatzei.»	(53)
haztatu 'hatzez ikutu'	«Bere eskua berriro pistola haztatzen ari zen.»	(111)
hegi 'hegala, ertza'	«Iluntzean Martins kanalaren hegian zehar zebilen...»	(67)
hits 'triste, goibel, ilun'	«...Vienna hiria, suntsitua eta hitsa , zonaka zatitua Lau Potentzien artean...»	(8)
hitzartu 'konprometuz hartu'	«Gaur goizean hitzaldi batzuk hitzartu ditut datorren asterako Innsbruck-en eta Salzburgen...»	(60)
hitzetik hortzera 'bat-batean'	«...ahoa hitzetik hortzera itxi zuen, informazio gehiegi emateagatik damu hartuko balu bezala.»	(52)
hunkitu 'zirrara sortu'	«...Kochen heriotzeak bihotzean hunkitu nau.»	(91)
hutsaren hurrengo 'ezgauza'	«Planak egiten mundiala zen (...) hutsaren hurrengo , ordea, bere planak aurrera eramateko orduan.»	(22)
ihardetsi 'erantzun'	«Odol piska bat besoarekin garbitu eta ihardetsi zidan...»	(27)
ileorde 'peluka'	«— Lehen begi kolpera gogoko gertatu ez zitzaidana (...) jantzita zeraman ileordea zen.»	(36)
imintzio 'keinua, mugimendu nabarmena'	« Imintzio bitxia egin zuen eskuarekin belaun gaineko hautsa kentzeko bezala...»	(96)
inarrosi 'astindu'	«Errusiarrak alemanez zenbait hitz ahoskatu eta paper batzuk inarrosi zituen eskuan.»	(107)
intziri 'kexuzko oihua'	«... intziri bitxi batek atzera begira eta aurpegi eman erazi zion...»	(85)
iradoki 'sugeritu'	«Limek iradoki zuen Martinsek artikulu bat idatz zezakeela...»	(11)
irispide 'muga, eremua'	«...aulkia piska bat atzeratu nuen, bere ukabilaren irispidetik kanpo egoteko lain.»	(23)
irrika 'nahikundea, gogo bizia'	«...denbora guztian neskari begiratzen zion, sexuzko irrika arrastorik gabe...»	(108)
itaunketa 'galdeketa'	«Geroago, Martins itaunketa xehea egiten ari nintzaiola, honela galdetu nion...»	(58)
itzuri 'saihestu'	«Ozta-ozta itzuri nuen, baina mahaiarekin estrapozu egin nuen.»	(27)
jaio 'trebea, mutila'	«...nire gizona baino jaioagoa zen norbait Kochenera jarraiki zitzaion eta ezkutuka ibili.»	(89)




jaregin 'amore eman, askatu'	«Gizonak algara bati jaregin zion dozena bat buru itzuleraziz.»	(74)
jasa 'piloa, zaparrada'	«Aldi berean izen jasa bat jaurti zioten Martinsi: Stein bezalako ziri izen zorrotzak, Woolf bezalako harri biribilak.»	(82)
jaulki 'irten'	«...eskerronezko eta kunplimenduzko eseratxoak gurrak bailiran jaulkitzen joan ziren...»	(84)
jauzkari 'saltaria'	«...Ringeke estatua handiak, zaldi jauzkariak (...) arre nabarmentzen ziren arratsaren atzenetan.»	(47)
jazarri 'iheslaria'	«...ikusitako nuen nola bat-batean bere begi jazarriak nonbait finkatzen ziren.»	(36)
jipoitu 'jo, egurtu'	«Entzun nuen nola Paineak jipoitu berria zuen gizonari begirune haundiz honela esaten zion...»	(27)
kale eragin 'huts eginarazi'	«...edanak kale eragin zion.»	(25)
kili-kolo 'orekarik gabe'	«...nahaspilatutako mahai kili-kolo desegoki baten gainean...»	(68)
kinka larrian 'larrialdian, estualdian'	« Kinka larrian zegoen beti Rollo Martinsen baitan...»	(14)
lagin 'erakusgarria, muestra'	«...Martinsi lagin batzuk erakutsi nizkion.»	(92)
lain 'beste, adina'	«...aulkia piska bat atzeratu nuen, bere ukabilaren irispidetik kanpo egoteko lain .»	(23)
lardats 'narrax, zikin'	«— Hiri honetako bizibiderik lardatsena zuen azpikaririk gaiztoenetakoa zen.»	(24)
lausotu 'lanbrotu, ilundu'	«Hirugarren whisky kargatuak Martinsen adimena lausotzen zuen ...»	(67)
lepo egina 'lepo (sama) moztua'	«...sotoan lepo egina inor aurkitu ez balute bezala zetorren...»	(121)
lipar 'unea, momentua, eretia'	« Lipar batez, kale ilun ospelean, Coolerrengana zuzen joateko zori-zorian egon zen...»	(53)
liskar 'eztabaida gogorra'	«Annaren gelara itzuli zenean liskar bat biztua zegoen.»	(109)
lozorro 'lo sakona'	«Zuzenean nire etxearekin komunikatu eta goizaldeko lozorro sakonetik iratzarri ninduen.»	(108)
lurmendu 'elurra urtu'	«...Vienna osoaren gaintetik elurrak lurmentzen ari zuen...»	(142)
mailburu 'eskilarartea'	«— Non lurperatu behar dute? —galdegin zion ezezagunari mailburuan .»	(16)
maizter 'alokairuan dagoena'	«— Ikusten duzunez —zioen Herr Kochek— prest dago maizter berriarentzat.»	(57)
mehar 'estu, argal'	«...bizkor aldegin zuen bere hanka luze eta meharrek korrikari eman nahian bezala...»	(8)
mokokaldi 'eztabaida, liskarra'	«Gure mokokaldiek ez ditek inoiz luze irauten.»	(126)
mordoilo 'lardatsa, nahasia'	«Amerikarrak aleman mordoilo z esan zion errusiarrari...»	(109)
muzin egin 'gaitzetsi, alboratu'	«...buruak ematen zidan Martinsek ez ziola inolako edariri muzin egingo ...»	(20)
nimiño 'txikitxo'	«...han goian aurpegi nimiñoak kristalaren kontra zanpatzen ziren.»	(121)



norbere gain 'ardurapean hartu'	«...zein potentziak eska zezakeen presoa bere gain hartzea.»	(109)
ogi ala ardo 'zozketaz'	«...baina Rollok (...) ogi ala ardora botatzea deliberatu eta txanponak bestea egitearen alde erabaki zuen...»	(54)
oldartu 'eraso'	«Albo batera egin zuen tabernariari bidea utziz bezala, eta gainera oldartu zitzaidan.»	(26)
orobat 'era berean, baita'	«Agiri guztiak aldean eramateaz arduratu zen, orobat Lau Potentzien ziurtagiria...»	(118)
oroimin 'nostalgia'	«Limeren bizitza –hogei urtetan bederen– berea izan uste zuelako oroimina zuen.»	(18)
ortzemuga 'ostertza, zeru muga'	« Ortzemuga urrunago lerratu eta Danubio ageriago...»	(122)
ospel 'argi gutxiko lekua, hotza eta	«...hogei urte lehenago eskolako pasilu ospelean ...»	(15)
otordu 'jatordua'	«...bere ikerketak otorduetan eten beharrik ez zuen.»	(48)
patu 'halabeharra'	«... patuaren eraginak ezin du inoiz ere artxihoetan kokalekurik aurkitu.»	(62)
pegadizo 'keinua'	«...bere lankideei pegadizo bat egin eta kotxea Anna Schimdt bizi zen kalerantz zuzendu zuen.»	(107)
ponte 'bataio ontzia'	«...batetik ponteko izen absurdoa, bestetik abizen holandar irmoa ...»	(14)
purrustada 'ahopeko hitz garratza'	«Erantzun bezala purrustada muker bat eta marmarka esandako zerbait bakarrik jaso zuen...»	(77)
saihestu 'aldendu, desbideratu'	«...gure iritziz nahita saihestu zuen bere jarraitzailea.»	(87)
salbuetsi 'arautik kanpo utzi'	«Neska ere han zegoen, noski, baina batek beti salbuesten ditu emakumeak horrelako generalizazioetatik.»	(18)
saldo 'taldea'	«...gorpu bat lurrean, txori saldo bat inguruan bilduta.»	(45)
segizio 'jarraitzaile multzoa'	«Frau Koch segizioaren atzean zetorren...»	(75)
seneratu 'zentzua berreskuratu'	«...Harry hiltzorian hain seneratua baldin bazegoen ez zion telegramarik bidali bertan geldu zedin.»	(34)
sumindura 'beroaldia, haserrea'	«Alkoholaren sumindura areagotuz zihoakion.»	(22)
suntsitu 'desegin, apurtu'	«...Vienna hiria, suntsitua eta hitsa, zonaka zatitua Lau Potentzien artean...»	(8)
suspertu 'indarberritu'	«...heriotzeagatik hartutako zarrastadaz suspertzen hasita zegoen.»	(22)
tenore 'egokieraa, une aproposa'	« Tenore hartan Cooler ikustera ere inolako arazorik gabe joan zitekeen.»	(53)
trufatu 'barre egin, burlatu'	«Ala eten gabe trufatzen zen gu bezalako inozoez?»	(100)
tupustean 'kolpera, bat-batean'	«Martinek tupustean (...) basamortu bat ikusi zuen...»	(45)
txibista 'bi begidun korapiloa'	«Barnebidetate batek, txibistekiko gortinadun leiho txikiakin...»	(42)
txima jario 'ile nahasia, zapa'	«Anna Schimden balizko arriskuak ez bestek itzulerazi zuen nire bulegora (...) txima jario , bizarra egiteke...»	(104)



txirikordatu 'nahasi, korapilatu'	«...burdinazko hutsarte txirikordatu hartara amilduko ote zuen beldurrez bezala.»	(124)
txolin 'txoriburua, ganoragabea'	«Neska txolinen gustuko gertatzeko apaindua zela zirudien.»	(36)
txolinkeria 'hitzontzikeria, arinkeria'	«...bere buru lasai askoa baretzeko txolinkeriak ehuntzeko duen ohitura horrek...»	(31)
ubeldu 'beztu, moretu'	«Nahiago dut zaren babo arraio hori barregarri utzi begiondoa ubeldu baino.»	(25)
ukendu 'igurzteko sendagaia'	«...pote bat, erdi usatutako pintura eta ukenduak zeuzkana.»	(43)
uzkurtu 'makurtu'	«Goitik ikusi zituen, uzkurtuta zeudela, zamaren gainera makurtuta...»	(56)
xahutu 'eralgi, gastatu'	«...zure <i>schilling</i> austriarrak kabaret batean xahutzeko bezain ergela baldin bazara...»	(8)
xalo 'atsegina, apala'	«...baina gizakia zen, aurpegia bazuen, nekazari xaloaren aurpegia, memelo begiekin.»	(76)
xuxurlatu 'ahots isilez esan'	«Crabbinek xuxurlatu zion...»	(82)
zabuka 'harantz-honantz mugituz'	«...kabina zabuka igoten ari zen bitartean...»	(123)
zantzu 'aztarna, ezaugarri'	«...zona errusiarrean sartzen ari zela, baina ez zegoen okupazio zantzurik .»	(118)
zapatatu 'txipli-txaplaka egin'	«...zuhaitzez inguratutako ibilbide luzean zehar elur baltsa zapatatuz .»	(142)
zarrakatu 'arrakalatu, hautsi'	«...zulagailu elektrikoak erabili behar izan zituzten lur izoztua zarrakatzeko ...»	(7)
zarrastada 'zirrara, ustekabea'	«— Ez zenuen zarrastada makala hartuko! »	(19)
zartatu 'arrakalatu, printzatu'	«...kanpai zartatua otoitz ordua jotzen ari zela...»	(15)
zegoeneko 'ordurako, jadanik'	«... zegoeneko bagenekien gure bitartekoaren izena...»	(94)
zendu 'hil'	«...estraineko aldiz topatu zuenetik heroetzat miretsi zuena zendua zela.»	(15)
zintz egin 'mukiak kendu'	«...eta bi bider zintz egin zuen garbiro eta arretaz, sudur zuloak banaka estaliz.»	(49)
zirkin 'mugimendua'	« Zirkin tipi bat egin eta berriro hasi, arnasestuka bezala.»	(85)
zirt edo zart 'luze gabe'	«Une batzuk izaten dira zirt edo zart erabaki beharrekoak...»	(91)
zirtzil 'zitala, ziztrina'	«...burua makurtua eta alboratua zeramala, basapizti zirtzil batek bezala.»	(97)
zizeilu 'zitzaailua, sofa'	«Bizkar garaidun zizeilu zatar haiek ere behinolako kardinalen jarleku izanak ziruditen.»	(49)
zuhurki 'kontuz, arretaz'	«Banekien nire jeeparen txoferrak irteterakoan ikusi eta atzetik segika zuhurki joango zitzaigula.»	(19)
zur eta lur 'zeharo harriturik'	« Zur eta lur begiratu zion neskak...»	(101)
zurubi 'eskilara, biribilekoa'	«...atea zabaldu nuen eta Martinsen erakutsi burdinazko zurubitxo kiribildua, lurrazpian aienatzen zena.»	(115)



zuznan
'inguruka ibili'

«...andragaldu batzuk **zuznan** ari dira Informazio Bulego Amerikarraren inguruan...»

(9)